

30E/2018 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena, 2018an, Nafarroako Foru Komunitateko lantoki pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko diru-laguntzen esleipena ebazten duena.

Erreferentzia:	Espediente kodea: 0011-1491-2018-000000
UNITATE KUDEATZAILEA:	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua Euskararen sustapena eta plangintza Euskara Sustatzeko Atala Tel.: 848 426054-- Faxa: Helbidea: Yanguas y Miranda 27 1. 31003 Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA:	
Espediente mota:	2018an, Nafarroako Foru Komunitateko lantoki pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko diru-laguntzak.
Aplikatzeko arauak:	
Eskariak aurkezteko epea:	-

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkezten du 2018an Nafarroako Foru Komunitateko lantoki pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren esleipena proposatuz, otsailaren 14ko 9E/2018 Foru Aginduan onetsitako deialdiak xedatutako baldintzak betetzen dituztenei.

Maiatzaren 9an bildu zen Balorazio Batzorde Teknikoa jasotako eskariak deialdia arautzen duten oinarrien arabera aztertzeko. Guztira, 17 enpresa aurkeztu dira. Horietatik 2, bina eskaera bi modalitatetan izapidetu dira, eta gainerakoak bakar batera aurkeztu dira. Beraz, 19 eskari jaso dira guztira.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak txostena aurkeztu du baldintzak betetzen dituzten 17 lantoki horiei esleitu beharreko diru-laguntzak proposatzeko.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun hauei beheko taulan ageri diren zenbatekoak esleitzea:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Ejercicio	Importe
0011-1491-2018-000001	G31351935	FUNDACION TRAPEROS DE EMAUS	G/B30002/4701/334100	2018	936,17
0011-1491-2018-000002	B31544075	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	G/B30002/4701/334100	2018	655,32
0011-1491-2018-000003	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDA	G/B30002/4701/334100	2018	4.150,37
0011-1491-2018-000004	F71039242	ALTSASUKO S COOP	G/B30002/4701/334100	2018	15.132,50
0011-1491-2018-000005	G31137482	FEDERACION DE ASOCIACIONES OBRERAS SINDI	G/B30002/4701/334100	2018	343,26

0011-1491-2018-000006	B71008940	LABRIT MULTIMEDIA SL	G/B30002/4701/3341 00	2018	2.465,26
0011-1491-2018-000007	B31636053	POLQUE LA SELECCION DEL MUEBLE SL	G/B30002/4701/3341 00	2018	124,82
0011-1491-2018-000008	G31715899	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/B30002/4701/3341 00	2018	10.482,74
0011-1491-2018-000010	B31671803	SUMINISTROS Y SERVICIOS UNIFICADOS DE CARROCERIA SL	G/B30002/4701/3341 00	2018	1.155,32
0011-1491-2018-000011	E71192603	ARPIDE CHAMIZO DIEGO Y LEZA FERNANDEZ IS	G/B30002/4701/3341 00	2018	374,47
0011-1491-2018-000012	A50008150	SUPERMERCADOS SABECO SA	G/B30002/4701/3341 00	2018	7.701,55
0011-1491-2018-000013	F31600240	FAGOR EDERLAN TAFALLA, S.COOP	G/B30002/4701/3341 00	2018	7.361,85
0011-1491-2018-000014	F71143796	1978 kooperatiba scis	G/B30002/4701/3341 00	2018	1.572,77
0011-1491-2018-000015	G31523715	ASOCIACION DE DAÑO CEREBRAL DE NAVARRA	G/B30002/4701/3341 00	2018	1.319,38
0011-1491-2018-000016	F20032553	AUZO LAGUN S COOP	G/B30002/4701/3341 00	2018	6.170,10
0011-1491-2018-000017	A31003627	LA BURUNDESA SA	G/B30002/4701/3341 00	2018	15.250,00
0011-1491-2018-000018	F31357320	MANUFACTURAS DEL ALUMINIO PAMPLONA SECTOR AUTOMOCI	G/B30002/4701/3341 00	2018	4.804,10

2. Ebazpen hau eta bere Eranskina jakinaraziko zaio onuradun bakoitzari, kopurua eta emandako diru-laguntzari dagozkion gainontzeko xehetasunak zehaztuko dituen eranskin batekin. Laguntza ukatzen denean, arrazoiak emanen dira.

3. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuan Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Kontu-hartzaitza delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Aferetarako Bulegora, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Programen Bulegora eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzaten.

4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia, Nafarroako Gobernuaren aitzinean alde aurreko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA
Mikel Arregi Pérez